

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Goicoechea lehendakariordeak Madrilera bizitzera joandako enpresari nafarrei erreforma fiskalaren proiektua azaldu die

Círculo de Navarra elkarteko kide diren berrogeita hamar bat enpresari eta profesionalekin bildu da gaur goizean

Lunes, 15 de septiembre de 2014

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea "Círculo de Navarra" elkarteko kideekin elkartu da gaur goizean, Madrilen. Elkarre hori Espainiako hiriburuan bizitzen jarritako enpresari eta profesionalak osatzen dute. Bilkura horretan Nafarroako



Goicoechea lehendakariordea, bilkuran izandako batzuekin.

Gobernuak landutako erreforma fiskalaren proiektuko alderdi nagusiak azaldu dizkie, une honetan parlamentuko izapidean dagoena.

Bileran elkarte horretako kide diren 50 bat enpresarik parte hartu dute. Elkarre iaz sortu zen Nafarroako garapen ekonomikoa eta enpresagarapena sustatzeko asmoz, bai eta haren identitate-balioak zabaltzeko ere.

Elkarteko lehendakari Fermín Villanuevak eta zuzendaritza-batzordeko kide Carlos Fernández-Lergak egindako aurkezpenaren ondoren, lehendakariordeak Komunitateak egun zer egoera ekonomikoa duen adierazi du, eta egoera hori "itxaropentsutzat" jo du; nolabaiteko "susperraldia" dagoela dagoeneko ikus daiteke" eta "adierazle makroekonomiko pozgarriak finkatzen ari dira". "Industria-ekoizpen, esportazioen datuak pixkanaka hobetzen ari dira, enpresari nahiz kontsumitzaileen konfiantza-indizea hobetzen ari da eta baita barne-kontsumoarena ere; horrek guztiak Nafarroa "egoera ekonomiko txarraren erasoak ondoen pairatu dituen autonomia erkidego bihurtu du".

Aurretiazko azterketa horren ondoren, Lourdes Goicoecheak aipatu du Gobernuaren ahalegina susperraldi ekonomikoan eta enpleguaren sorreran kontzentratzen dela eta, horretarako, hazkunderako motorra izango den erreforma fiskalaren proiektua egin duela; proiektu hori behar besteko baliabideetan, sistemaren zuzentasunean eta progresibitatean oinarritzen da. Zeharkako zergei dagozkien behar besteko baliabideetan oinarritu da; izan ere, Nafarroak zeharkako zergen gaineko araudi-eskumenik ez du, BEZa edo Zerga Bereziak, esate baterako.

Zehazki, azaldu du Gobernuak proposatutako erreforma fiskalaren proiektuak nafar guztientzako zerga-jaitsiera bat dakarrela, zerga-tasen progresibitateari eusten diola eta sistemaren zuzentasuna hobetzen duela.

Lehendakariordearen arabera, **Sozietateen gaineko Zergan** egindako jarduerak izango duten eragin handiena susperraldi ekonomikoan eta enpleguaren sorreran. Zehazki, Gobernuaren proposamenak egungo sistema sinplifikatzearen alde egiten du, konplexua dena enpresa-tamainaren araberrako tasa ezberdinak daudelako eta askotariko hobari fiskalak daudelako, tasa orokor bakarra ezarriz, % 20, enpresa guztietarako, kooperatibak eta lan-sozietateak (% 17), irabazi-asmorik gabeko erakundeak era fundazioak (% 10) salbu. % 10eko zerga-lurzorua finkatzen da. Hobari fiskalak ere sinplifikatzen dira honako hauengatik: kenkariari eutsiz: I+G+B, biomasa-instalazioak, inbertsioen erreserba berezia, enpresa aktibo finko materialak eta enpleguaren sorrera, handitu egiten dena ere (% 13 eta 33 artean, kasuen arabera).

PFEZari dagokionez, berrikuntza moduan, Gobernuak errenta-aitorpenean seme-alabak eta adinekoak zaintzeko kontratatutako pertsonen soldata kentzea proposatzen du, eta ez bakarrik gizarte-segurantzako kuotak orain arte bezala, ezkutuko enpleguaren zati bat azalera dadin; gainera, kapital higigarri eta higiezinen errendimenduei lotutako tratamendu fiskala bateratzen da ondorengo helburuarekin: erregulazio fiskalak zergadunen inbertsio-erabakietan ahalik eta gutxien eragin dezan.

Gainerakoan, PFEZaren beste atal guztiei eusten zaie (hamar), eta tarifa guztiak jaisten dira, errenta txikienean onura handiagoa izanez. 2015. urterako lehen sei atalarentako karga osagarria osorik kentzen da (53.000 eurorainoko errentak), eta gainerako lauarentako % 50 murrizten. Gainera, gutxienean tasa pertsonal eta familiarak % 5 igotzen dira, eta desgaitasuna duten pertsonen aplikatu beharrekoa, % 10; aurrezte-oinarriari aplikatu beharreko tasak ere murrizten dira. Halaber, moduluen egungo sistemari eusten zaio, bai eta egungo kenkariari ere ohiko etxebizitza erosi, birgaitu eta lokatzeagatik ere, eta bi kenkari gehiago jasotze dira, sindikatuen kuotei eta alderdi politikoei egindako ekarpenen buruzko kenkariak. Kaleratzearen ondoriozko kenkaria ere ez da ukitzen.

Ondarearen gaineko Zergan, Gobernuak proposatutako erreformak salbuespeneko gutxienean 311.000 eurotik, Estatuko txikienean, 1.000.000 eurora igotzea jasotzen da, nafarrak Espainiako gainerako biztanleak baino egoera txarragoetan izan ez daitezela.

Lehendakariordeak agerraldia amaitu du esanez, erreforma fiskalaren proiektua lantzeko orduan ahalik eta adostasun sozial handiena bilatzen saiatu dela, eta partaidetza zabaleko prozesu baten emaitza dela, gizarteko esparru guztiek eta herritarrek egindako proposamen nahiz ekarpenekin.

Bilkura mahai-inguru batekin amaitu da; bertan parte-hartzaileek Nafarroako egoera ekonomikoa eta etorkizuneko aukerak aztertu dituzte.